



HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO TXOSTENA, NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEAN DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOAREN ERREGELAMENDUA
ONESTEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatu zen, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jaso nahi baitzen zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen pertsonak eta ordezkariak handieneko erakundeak, honako hauei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Aldez aurretiko kontsultan herritarrek iradokizunak aurkeztu ahal zituzten 2020ko abuztuaren 24tik irailaren 18ra. Jendaurrean egon zen epean ez zen iradokizunik aurkeztu.

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren apirilaren 6ko 10/2021 Foru Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Nafarroako Foru Komunitatean Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onesten duen foru dekretua egiteko prozedurari, eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko Justiziako Gizarte Zerbitzua izendatu zen proiektuaren prestaketaren eta prozedura horren organo arduradun.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 14ko 11/2019 Foru Legearen 133.2 artikuluan eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru dekretuaren proiektua jendaurrean egon da 2021eko maiatzaren 11tik 31ra, eta ez zaio alegaziorik aurkeztu foru dekretuaren proiektuari.

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an.

JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUKO ZUZENDARIA Jesús
Jiménez de Luque. (Sinadura jatorrizkoan dago)